

LABek merezimendu lehiaketarako ekarpenak bidali ditu

LABek Haurreskolak Partzuergoari Kontsolidazio prozesuaren merituen lehiaketan Haurreskolak Partzuergoan daukagun **lan esperientziari balio gehiago ematea lehenesten du**.

Jakingo duzuen moduan, **372 haur hezitzaile kategoriako lanpostu** eskainiko dira Haurreskolak Partzuergoan legez. Abenduaren 31a baino lehen lan eskaintza publikoaren deialdien oinarri orokorrak argitaratu behar dira. Irailean izandako mahai negoziatzailean aurkeztu ziguten deialdiaren lehenengo zirriborroa eta pasa den ostiralean bukatu zen Partzuergoari ekarpenak bidaltzeko epea.

Hauk dira **LABek egindako proposamenaren ildo nagusiak**:

Barematuko diren ATALAK	PARTZUERGOAREN proposamena	LABen proposamena
Lan esperientzia Orokorra <ul style="list-style-type: none"> Haurreskola publikoetan (Haurreskolak Partzuergoa edota Udal haur eskolak) Haur eskola pribatuetan Espezifikoa <ul style="list-style-type: none"> Haurreskolak Partzuergoan 	- 6 urtetara mugatzen du lan esperientzia, - Lan esperientzia bi aldiz zenbatzen da: Haurreskola publikoetako atal orokorra + Haurreskolak Partzuergoko atal espezifikoa - Espezifikoa: puntuazio lineala proposatzen du.	- 2004ko urtarrilaren 1tik aurrera (Partzuergoa sortu zenetik) zenbatzea. - Lan esperientzia bi aldiz zenbatzea. - Espezifikoa: 2004tik aurrera, urteka era progresiboan puntuazioa igotzen joatea, gaur egun Partzuergoan lanean daudenak sarituz.
	Puntuen % 64a	Puntuen % 90a
Beste merezimenduak <ul style="list-style-type: none"> Hautaketa prozesuak <ul style="list-style-type: none"> 2008/2009 LEPak gainditu izana Ordezkoen zerrendan egotea Prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak: 0-3rekin lotutakoak Ikasketa ofizialak: hezkuntzakoak 	Puntuen % 36a	Puntuen % 10a

- Baremoak:** soilik haur hezkuntzako lehenengo zikloaren lan esperientzia eta formazioa barematzea.
- Lan esperientzia atala:**
 - Orokorren eta espezifikoa lan esperientziari ematen zaien puntuazioen arteko aldea handiagoa izatea. Hau da, Partzuergoak proposatzen zuen proportzioa erdia bazen (Partzuergoan 4/publikoetan 2/pribatuetan 1), LABek herenaren proportzioa proposatzen du (9/3/1).

- **Salbuespeneko Kontsolidazio prozesua legez 2024ko abendua baino lehen bukatuta egon behar du.** Partzuergoak 2023ko iraila baino lehen egin nahi badu ere LABek prozesua ondo egitea lehenesten du. Beraz, hurrenez hurren prozesuan zehar egon behar diren mugarriak, bidali dizkiogu ekarpenetan,
- **Lanpostuen zerrenda negoziatu behar da,** desplazamenduak ekiditeko eta haurreskolen eta hezitzaileen egonkortasuna helburua izaniko
- Eskainiko diren **lanpostuen identifikazioa** egin behar da, LABek eskatu duen bezala, **Lekualdatze Lehiaketan** parte hartuko duten egungo langile finkoek eskaintza publikora aterako diren lanpostu guztien artean aukeratu dezaten lehendabizi.
- Leku aldatze lehiaketa burutu ostean libre geratzen diren **372 plazen zerrenda** argitaratu behar da merezimendu **lehiaketaren hurrenkeraren arabera banatzeko.**

Ekarpenak bidalita, oraindik zehaztuta ez dagoen hurrengo mahai negoziatzailean ezagutuko ditugu Haurreskolak Partzuergoak eta Administrazioak onartutako ekarpenak. LAB sindikatutik prozesuaren inguruko informazio zehatz guztia langileekin partekatuko du egingo ditugun langileen asanbladetan. ANIMO ETA AURRERA!

haurreskolak **0123=0€**
unibertsala doakoa **euskalduna** kalitatekoa
inklusiboa eta hezkuntza sailean **integratua**